

«Ahantzi egiten da etxebizitza izatea eskubide bat dela»

Pablo Ruiz • Bizitegiko koordinatzailea

Denbora gutxian bi etxegabe hil dira: Donostian bat, hilaren 3an, eta Durangon bestea, asteburu honetan. Ruizek argi ditu laguntza zerbitzuen mugak: urriak dira, eta ezegokiak arta osorako.

Aranxa Iraola

Urteak hamalau egun besterik ez du oraindik, baina dagoeneko bi etxegabe hil dira. Donostian hilotz agertu zen etxegabe bat hilaren 3an; asteburu honetan beste bat hil da Durangon (Bizkaia). Bizitegi elkartearen propio dihardute bazterkeria egoerak saihesteko bideak lantzen, eta, bertako koordinatzaile tekniko Pablo Ruizen arabera (Bilbo, 1969), zuztarreko aldaketak egin behar dira etxerik ez dutenentzako zerbitzuei begira; izan ere, gurpilzoro batean kargatuta egoten dira sarri: abaro egoki eta seguru baten faltan, etsiak dira egoera hobe baterako urratsak.

Kutxa automatikoak aterpetuta egoten dira usu, eta toki horietara askotan jotzen dute etxegabeek. Halako tokietan gertatu dira, hain justu, berriki bi herio-

tzak. Aterpe horietara jo beharrrak erakusten ditu arta zerbitzuaren gabeziak, ezta?

Haizerik ez da leku horietan, euririk ere ez, ate bat dute, eta segurtasun kamerak ere bai: kalean bizi diren pertsonentzat, segurtasun eremu bat dira halakoak. Zerbitzuak ez diren aski? Ez da galdera erraza. Pertsona bakoitzak motibo ezberdinak izango ditu gaua aterpetxe batean lo egitea ez da etxebizitza bat izatea; gizarteratzeko baliabide batean zaudelako lo egiteko toki bat izatea ere ez. Horrek esan nahi du prozesu bat egiten duzun bitartean non lo egina duzula: ez da etxe bat izatea. **Osasun zerbitzuetara heltzea ere zailagoa izaten da etxegabeentzat, edota zaintza egoki baterako giro bat edukitzea...** Osasun arta unibertsala da, baina osasun artarako sarbide efektiboa gaitzagoa izaten da kalean.



LUIS JAUREGIALTZO / FOKU

Eta osotasun horretan hartu behar da aintzat egoera...

Baina gizarte honetan etxebizitza ia guztiz alde ekonomikoarekin lotzen da: ahantzi egiten da etxebizitza izatea eskubide bat dela. Eta horrek bazterkeriara bultzatzen ditu pertsona asko. Gauza argia da etxebizitza bat izateko eskubideak gailendu egin behar lukela jabeen pribatuarenaren gainetik, baina, askotan, ez da hala izaten. Gizarte honetan, ekonomia gailentzen da gehienetan.

Eta, ondorioz, baztertuta dagoen jende askorentzat etxebizitza lortzea oztopo oso handia izaten da egoera hori atzean uzteko prozesuan.

Eta osotasun horretan hartu behar da aintzat egoera...

Baina gizarte honetan etxebizitza ia guztiz alde ekonomikoarekin lotzen da: ahantzi egiten da etxebizitza izatea eskubide bat dela. Eta horrek bazterkeriara bultzatzen ditu pertsona asko. Gauza argia da etxebizitza bat izateko eskubideak gailendu egin behar lukela jabeen pribatuarenaren gainetik, baina, askotan, ez da hala izaten. Gizarte honetan, ekonomia gailentzen da gehienetan.

Eta, ondorioz, baztertuta dagoen jende askorentzat etxebizitza lortzea oztopo oso handia izaten da egoera hori atzean uzteko prozesuan.

Bai. Etxebizitza, eta hura ken ez diezaieten etxegabe borrokan ibili beharra. Pertsona guztiak modua izan behar lukete etxe batean bizitza proiektu bat eraikitzeo une oro etxe hori galtzeko mehatxua gainean izan gabe.

Egun eskaintzen diren zerbitzuek zer falta dute, alde horretatik, egokiagoak izateko?

Askotan, artatzen diren pertsonak ez dira pertsonen kategorian sartzen, baizik eta etxegabeen kategorian. Hori aldatzea da gakoa. Orenen gainetik, egiten den eskaintza bakoitzean, pertsonen duintasuna lehenetsi behar da. Sarri, ordea, pertsona horiei gogorazten zaie ez direla gizarte honetarako baliagarriak, eta erabiltzen ari direla besteek jarritako baliabideak beraiek ezin dutelako, ez dakitelako, ez direlako iristen... Horrek oso egoera ahulean jartzen ditu, eta hortik irteera oso zaila da. Izan ere, usu sentitzen dute gizarteak goitik behera begiratzen dituela...

Eta horregatik hainbat pertsona ez dira eroso sentitzen zerbitzu horietan...

Seguru.

Kalean bizi diren pertsonen azken zenbaketa 2018 amaieran egin zen: gorakada ikusi zen.

Bai. Ez dakit ongi zer gertatzen den, baina desberdintasun indizeak handitzen ari dira gizartearen, eta atzean daudenak atzerago uzten ditu horrek. Hala ere, zera esan behar da: etxegabeen egoera ez da soilik kalean lo egiten dutenena. Kontuan hartu behar dira, halaber, seguruak ez diren eta baldintza kaskarrak dituzten etxeetan bizi direnak. Kalean lo egiten dutenak izozmendiaren punta dira.

'LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO HITZA' -K KUDEATZAILEA BEHAR DU:

Enpresa kudeatzeaz ez ezik (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala) eragileekin izan beharreko harremanez ere arduratuko den pertsona baten bila gabiltza.

Eskaitzen da:

- Kudeaketa eta administrazio arloko ikasketak eta ezagutzak izatea,
- Kudeaketa lanetan eskarmentua izatea kontuan hartuko da.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako eta antolatetarako gaitasuna.
- Euskara maila ona.
- Eskualdean bizitzea edo ingurua ongi ezagutzea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

Eskaintzen da:

- Lanaldi osoko aldi baterako lan kontratua.
- Berehalako lanetan hastea.
- Lantokia Markinan.

Interesa duenak bidali CVa gizabaliabideak@berriataldea.eus helbide elektronikora, 'Kudeatzailea' erreferentzia zehaztuz, 2020ko urtarrilaren 20a baino lehen.

UDALTZAINEN DEIALDI BERRIA
(2020/01/08 EHAA)

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA
2020/01/09 → 2020/02/05
(biak barne)

900 840 088
www.arkauteakademia.eus